



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2022ko BIGARREN LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2022ko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1252 jakinarazpen izan dira. Horietatik 349 alertak izan dira (%28), 487 informazio-jakinarazpenak (%39) eta 416 mugan egin diren ukapenak (%33).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **27a Turkiakoak** eta % **21a Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **17**arekin, bigarren **Holanda** izan delarik % **13**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**22** izan ditu eta **Marokok %21a**. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB %27arekin eta Brasil %22arekin** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2022ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1252 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 24,5
Hondakinak	% 24
Iruzurrak	% 18,5
Mikotoxinak/biotoxinak	% 15,5
Kutsadura kimikoa	% 5,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 5
Metal astunak	% 4
Kutsadura fisikoa	% 3



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 71,5an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 45a eragin du. Kasu gehienetan, % 33,5ean, kakahuetea **Argentina**tik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %64a eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 77an. **SESAMOA** izan da produktu protagonista %30eko kasuetan, %49ko kasuetan **NIGERIA** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %16,5a **Salmonella enteritidis**i dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 90,5a eta %96,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta %6,5a **Salmonella typhimuriumi**, kasu honetan **INDIOILARRA** protagonista delarik (%77a) eta **POLONIA** jatorriko %80ak.

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, **Listeria monocytogenes** bakteriak jakinarazpenen %15,5a eragin ditu, **GAZTA mota desberdinak** %28an inplikatuta egonda, **EUROPA** jatorrikoa %100ean..

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %95,5a dira eta **MEDIKAMENTUAK** %4,5a. Pestiziden kasuan, clorpirifos, debekatuta dagoen plagizida, %24,5en kasuetan erabili izan da. Bestalde, Turkian, alerta eta jakinarazpen guztietako %27en erruduna.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** %28ak, suposatu dute. Bestalde, %45,5a **ELIKAGAI-OSAGARRI**etan debekatutako sustantziak erabiltzeagatik.

